

# Arrasateko Udal Biblioteka

MEMORIA

2021



## AURKIBIDEA

<b>AURKEZPENA</b> .....	<b>3</b>
<b>HISTORIA ETA EBOLUZIOA</b> .....	<b>4</b>
<b>BAZKIDEAK</b> .....	<b>5</b>
<b>BILDUMA</b> .....	<b>6</b>
<b>MAILEGU ZERBITZUA</b> .....	<b>8</b>
BIBLIOTEKA ETXERA MAILEGU ZERBITZUA .....	9
MAILEGATUENAK .....	11
<b>ELIBURUTEGIA PLATAFORMA DIGITALA</b> .....	<b>14</b>
<b>ERABILTZAIEN ESKAERAK</b> .....	<b>15</b>
<b>LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGUA</b> .....	<b>16</b>
<b>TOKIKO BILDUMA</b> .....	<b>18</b>
LAN TEKNIKOAK .....	18
JARDUERAK .....	19
TOKIKO BILDUMAREN ERABILERA .....	20
<b>INTERNET ETA ORDENAGAILUEN ZERBITZUA</b> .....	<b>21</b>
<b>WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK</b> .....	<b>22</b>
<b>IRAKURKETA SUSTATZEKO JARDUERAK</b> .....	<b>23</b>
LITERATURA SOLASALDIAK.....	23
IPIIN KONTAKETA TAILERRA HELDUENTZAT .....	24
INGELESEZKO MINTZATALDEA .....	25
IPIIN KONTAKETAK HAURRENTZAT .....	26
AHOZ AHO 2021.....	27
LIBURUAREN EGUNA 2021 .....	28
BOOKFACE LEHIAKETAK .....	30
BIBLIOTEKAREN EGUNA 2021.....	30
BIBLIOPORRAK ETA NEGUKO GIDA .....	33
IRAKUR PUNTUA .....	33
MUNDUTIK ARRASATERA.....	34
BISITA GIDATUAK.....	36
MINTZOAN KUX-KUX.....	37
INTERESGUNEAK .....	38
IRAKURKETA AGENDA .....	38
<b>LANTALDEA</b> .....	<b>39</b>
PRESTAKUNTZA.....	40
<b>INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK</b> .....	<b>41</b>
KULTURATE .....	41
SANTA MARINAKO AUZO BIBLIOTEKA.....	42
<b>FINANTZAKETA</b> .....	<b>44</b>
<b>LIBURUTEGI PUBLIKOEN ESTANDARREN BETETZE MAILA</b> .....	<b>45</b>
<b>ONDORIOAK ETA LAN LERROAK</b> .....	<b>46</b>
<b>BIBLIOGRAFIA</b> .....	<b>48</b>

## AURKEZPENA

Memoria epe motzerako balio duen kudeaketa-baliabide bat da, funtsezko tresna gardentasuna emateko erakunde bati eta haren jarduerari. Kudeatzen ditugun zerbitzuen berri ematen du, herritarrak informazioa jasotzeko eskubidea baitu. Hori da, hain zuzen, txosten honen helburu nagusia: azaltzea zertan ari garen.

Memoria honek alderdi prospektiboa ere badu, etorkizunean hobetzeko proposamenak ere jasotzen baitira. Bibliotekako lankide denen partehartzean oinarritzen da, bakoitzak bere ardurapean dituen esparruen datuak eta ebaluazioak jaso baititu eta hortik abiatu gara ekarpenak biltzeko orduan.

Oraindik ere, 2021. urtea berezia izan da. Pandemiaren ondorioz, zerbitzuak mugatu behar izan ditugu. Edukiera, distantziak, covid-ziurtagiriaren eskaera eta abar. Egoerak eragin garrantzitsua izan du gure ohiko jardueran eta erabiltzaileak ere gutxiago hurbildu dira.

Memoria honetan jaso ditugun datuak landu dira indarrean dagoen *Euskadiko liburutegi publikoen estandarrak* kontuan izanda. Estandar hauek *Irakurketa maparen* baitan argitaratu ziren 2012an. Maparen oinarritzko elementuetako bat estandarraren definizioa da, euskal udalerrietan liburutegi publikoen zerbitzua normalizatu eta orekatzen lagunduko duena.

Zerbitzu publikoaren kalitatea hobetzeko helburuarekin Zerbitzu Gutuna argitaratu genuen 2020an. Bertan, kalitatezko konpromiso batzuk jaso genituen eta beraien betetze adierazleak ere. Konpromiso hauen betetze maila errepatatuko dugu memorian zehar.

Beraz, liburutegiko estandarrak, Zerbitzu Gutunean jasotako konpromisoen betetze mailak eta memoria honetan jasotako datuek markatuko dizkigute aurrera begira jarraitu beharreko lan ildo nagusiak.

**Bibliotekako lantaldea**

## HISTORIA ETA EBOLUZIOA

Arrasateko udal biblioteka 1966an sortu zen, Garibai etxean. 1987an Monterron Jauregia aldatu zen eta bertan bi hamarkadetan zehar eskaini zituen bere zerbitzuak. Denbora horretan izandako espazio eta irisgarritasun arazoak konpondu egin ziren San Frantzisko komentua zaharberritzean, egungo udal kultur etxea (Kulturate) eta Udal Bibliotekaren egoitza izan zedin. Birgaitze horretan, liburutegirako espazioak horretarako diseinatu ziren, eta 2007an egungo instalazio modernoak inauguratu ziren, 1.600 m<sup>2</sup> inguruko azalerarekin.

Liburutegiak bigarren zerbitzugune bat du 1991tik, Santa Marinako auzo biblioteka, haur eta gazteei zuzenduta.

2004. urtean, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarean (EIPS) sartu zen, eta, orduetik aurrera, Absysnet hartu zen lan-tresna gisa, elkarlaneko online katalogoan parte hartuz.







*Garibai etxea, Monterron Jauregia, Kulturate eta Santa Marina.*



## BAZKIDEAK

Goranzko joerarekin jarraitzen dugu bazkide kopuruari dagokionez. Egun, 12.604 herritar dira bibliotekako bazkide, beraz, esan genezake **Arrasateko biztanleriaren % 58a bibliotekako bazkide** dela.

Liburutegi Zerbitzuak 2021. urtean udal biblioteka guztietako bazkideen garbiketa egin du eta ezabatu ditu azken 10 urteetan mailegu zerbitzua erabili ez duten bazkide guztiak. Hori da arrazoia azken urtean bat-bateko jaitsiera egoteko gure bazkide kopuruan.




## BILDUMA

Biztanleko 2 dokumentu egokitzen zaizkio Arrasateri sarbide libreko funtsetan Euskadiko liburutegi publikoen 2012ko estandarren arabera. Arrasatek 21.729 biztanle dituela kontuan hartuta, sarrera libreko bilduma 44.000 dokumentu ingururekin osatu beharko litzateke.


Helduen bibliotekan, haur eta gazte bibliotekan eta Santa Marinako auzo bibliotekan dauden dokumentuen baturak 53.077 ematen du. Beraz, ondorioztatu dezakegu betetzen dugula bildumaren tamainari dagokion parametroa; baina adierazle honek ez digu azaltzen bilduma gaurkotua dagoen ala ez. Adierazle hau, beraz, erlazionatuta dago urtero erosi beharreko dokumentu kopuruarekin. Bilduma gaurkotua mantentzeko, urtero bildumaren % 10 berritu behar da eta, era berean, bildumaren % 10 xahutu. Beraz, urtero 4.400 dokumentu eskuratu beharko genituzke. 2021ean 3.485 eskuratu dira, hau da, bilduma % 8 inguru berritu dugu. Gure bibliotekako zerbitzu gutunean ere jasota dagoen konpromisoa da bildumaren % 10 berritzea.

Bildumak etengabeko aldaketak izaten ditu, komunitatearen interesak aldatzen direlako, gaiak zaharkitu eta liburuak hondatzen direlako. Xahuketak ahalbidetzen digu erabiltzaileentzat garrantzitsua, erakargarria eta erabilgarria den bilduma bat izatea. 2021ean 1.470 dokumenturi baja eman diegu eta honekin, sarbide libreko bildumatik % 3,4 xahutu dugu.


### Bilduma Kulturaten: 66.403 dokumentu




### Bilduma Santa Marinaran: 6.305 dokumentu




### 3.485 dokumentu berri 2021ean



### 3.485 dokumentu berri 2021ean jatorriaren arabera




### Bilduma kokagunearen arabera




Hurrei zuzendutako dokumentuak bildumaren %30 izatea komeni da eta gazte eta helduentzako dokumentuak % 70. Adierazle hau ondo betetzen dugu Arrasaten.

### Helduentzako bilduma hizkuntzaren arabera



### Haurrentzako bilduma hizkuntzaren arabera







Euskaraz argitaratzen denari arreta berezia jartzen diogu. Eusko Jaurlaritzak egindako Euskarazko argitalpenei buruzko XV. txostenaren arabera, testu-liburuak alde batera utzita, haur eta gazte literatura da euskarazko literatur argitalpenen industriaren zati garrantzitsuena, fikziozkoak ez diren liburuak gero eta, azkenik, helduentzako fikzioa. Liburu bildumak ditugu beste hizkuntzetan ere haur zein helduentzat: ingelesez, frantsesez, arabieraz, urduz, italieraz edo portugesez, besteak beste.


Liburuen mailegua da liburutegiek duten funtsezko eginkizuna. Azken urteetan gizartean eman diren ohitura aldaketak direla eta, maileguaren bilakaerak poliki-poliki beheranzko joera erakutsi du. eLiburutegia plataforma digitalak hartu dio erreleboa zati batean euskarri fisikoan egin ez den mailegu kopuruari.

2021ean mailegua suspertu egin da eta 42.500 dokumentu mailegatu dira. Bazkideen %30ak mailegu zerbitzua erabili duten eta egunero batz besteko 155 dokumentu mailegatu dira.


Eskola liburutegien gabeziari erantzuteko, herriko ikastetxeak hornitzen ditugu mailegu bereziekin; hain zuzen, 2021. urtean 331 dokumentu mailegatu dizkiegu. Kontutan izan behar da, pandemiaren eraginez, ikastetxe batzuek mailegu zerbitzua ez dutela erabili.




**Helduentzako dokumentuen maileguak hizkuntzaren arabera**



**Haurrentzako dokumentuen maileguak hizkuntzaren arabera**



**Automaileguaren bilakaera**



Pandemiagatik itzultako dokumentuek “berrogeialdia” pasa behar izan dute bibliotekan. Hori dela eta, automailegu makinak itzalita egon dira denbora luzez.

### **Biblioteka Etxera mailegu zerbitzua**

Biblioteka Etxera 2021eko udan martxan jarri dugun zerbitzu berria da. Helburua da liburutegira gerturatzeko zailtasunak dituzten pertsonen liburuak eta bestelako materialak etxeraino eramatea. Zerbitzua egonkortu arte, 80 urtetik gorakoak edo mugikortasun arazoak dituzten herritarrak dira onuradunak.

Zerbitzua martxan jarri dugunetik 9 lagunek eman dute izena, eta horietatik 2 pertsonen eskatu dituzte liburuak maileguan.

Banaketak astean behin egiten ditugu, momentuz.



# BIBLIOTEKA ETXERA


**Bibliotekako liburuak, pelikulak, diskoak eta aldizkariak etxeraino eramango dizkizugu.**  
Te llevaremos hasta casa libros, películas, discos y revistas de la biblioteca.

**DEITU · LLÁMANOS: 943 25 20 98**

- **80 urtetik gorakoentzat**  
Para mayores de 80 años
- **Mugikortasun arazoak dituztenentzat**  
Para personas con problemas de movilidad




*Biblioteka etxera zerbitzuko kartela.*



YouTube ES

Buscar

Berrienak Gaztelaniaz

Berrienak Gaztelaniaz

Es un servicio para mayores de 80 años o para personas con problemas de movilidad.

Biblioteka etxera

424 visualizaciones · 6 jul 2021

👍 6    🗨️ NO ME GUSTA    ➦ COMPARTIR    ⌵ GUARDAR    ...


*Biblioteka Etxera zerbitzuaren hedapena egiteko sortutako bideoa:  
<https://youtu.be/zVkkL8FsDzg>*



## Helduentzako liburuak



## Helduentzako liburuak euskaraz










## Haurrentzako liburuak



## Helduentzako pelikulak





## Haurrentzako pelikulak





## eLIBURUTEGIA PLATAFORMA DIGITALA

Euskadiko Irakurketa Sare Publikoak eLiburutegia plataforma eskaintzen du, 35.500 dokumentuz osatua. Honen bidez, maileguan hartu daitezke liburu elektronikoak, online pelikulak, audio liburuak eta aldizkari elektronikoak. Azken hauek 2021ean gehitu dira bildumara.




The screenshot shows the eLiburutegia website interface. At the top, there is a logo for eLiburutegia and the euskadi.eus logo. Below the logo, there are navigation links for 'eu', 'es', 'en', 'eLiburutegia', 'Katalogoa', 'Laguntza', 'Zinema', and 'Aldizkariak'. A search bar is present with the text 'Titulugatik edo egileagatik bilatu' and a 'Bilatu' button. On the left, there is a 'Gaikakoak' section with a list of categories and their respective counts. In the center, there is a 'Gomendioak' section displaying four book covers with their titles and authors.

eLiburutegia plataforma interneten: <http://www.eliburutegia.euskadi.eus>

## ERABILTZAILEEN ESKAERAK

Bibliotekan egunero jasotzen ditugu eskaerak, aurrez aurre eta online. Urtero 1.000 eskaera inguru jasotzen ditugu. Saiatzen gara ahal dugun azkarren erantzuten, eta gainera, ahalegintzen gara erantzun hori positiboa izan dadin. Dokumentu batzuk erosi egiten ditugu, beste batzuk liburutegien arteko maileguaren bidez lortzen ditugu, badira formatu digitalean eskuratzen ditugunak ere eLiburutegiaren bitartez eta gutxi batzuk ezeztatu egiten dira.

Erabiltzaileen eskaerei ematen zaien baiezko erantzunak guztira % 95,3 dira eta ezeztapenak soilik % 4,7. Zerbitzu Gutunean jasotakoaren arabera, eskaeren % 85 eskuratzea da bibliotekaren konpromisoa, eta, bistan denez, egun, helburu hori aise betetzen dugu.




## LIBURUTEGIEN ARTEKO MAILEGUA

Bibliotekak espazio mugatua du, eta beraz, ezinezkoa da erabiltzaileek izan ditzaketen eskari guztiak bertako bildumarekin asetzea. Eskari hauei erantzuteko modu bat liburutegien arteko mailegu zerbitzua da.

Autonomia erkidegoan Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak kudeatzen du liburutegien arteko mailegua, eta gainera, bere gain hartzen du zerbitzuaren gastua. Ondorioz, Euskadiko Irakurketa Publikoko Sarea osatzen dugun 286 bibliotekok kosturik gabe jaso eta bidaltzen ditugu liburuak eta bestelako materialak liburutegi batetik bestera, erabiltzaileen beharrak asetuz.

Arrasaten, erkidegoko sare honetatik kanpo ere eskatzen ditugu dokumentuak, bereziki Estatuko bi sare nagusienetan: biblioteka publikoen sarean, eta biblioteka unibertsitarioen sarean. Kasu honetan, bibliotekak bere gain hartzen ditu bidalketaren gastua eta zerbitzuaren kostua ere bai (liburu bakoitzeko 8 euro inguru).

Gure bazkideek liburutegien arteko mailegu zerbitzua bikain baloratzen dute, eta urtez urte erabilera handituz doa.



Datuetan garbi ikusten denez, Arrasateko bibliotekak bidaltzen duen dokumentuen kopurua eskatzen duena baino askoz handiagoa da, ia hirukoitza, eta horrek esan nahi du kalitatezko bilduma daukagula, anitza eta erabiltzaileen beharrei egokitu. Bildumaren bikaintasunaren beste adierazle bat da beste biblioteka batzuetara maileguan eskatzen ditugun dokumentuen kopurua urtez urte txikiagoa dela. Horrek esan nahi du bibliotekako bilduma geroz eta gehiago gerturaten dela erabiltzaileen eskaeretara.

Bestalde, aipatu beharra dago Kulturate eta Santa Marinako auzo bibliotekaren artean liburutegien arteko mailegu zerbitzua eskaintzen dela eta erabiltzaileek eskatutako dokumentuak egun batetik bestera ekarri eta eramaten ditugula. Batz bestea, egunero dokumentu bat edo bi eskatzen dira.



Erabiltzaile partikularren eskaerei erantzuna emateaz gain, herriko erakunde desberdinen irakurketa klubak ere hornitzen ditugu. Bibliotekan bertan 3 talde ditugu: euskarazko solasaldien taldea, gaztelerazkoa eta ingelesekoa. Eta bibliotekatik kanpo beste hainbat irakurle klub daude: Fundación Goyeneche, Aita Menni, San Juan de Dios, Emakume Txokoa eta EPA-HHI.

## TOKIKO BILDUMA

Tokiko Bilduma bibliotekaren altxor preziatua da, bildumarik bereziena delako, eta bakarra. Bertan biltzen ditugu herriko egileen lanak edota herriari buruzko informazio anitza. Guztira 1.686 dokumentu daude, material mota desberdinetakoak: liburuak, aldizkariak, cdak eta bideoak. Kopuru honi gehitu behar zaizkio beste material batzuk, beraien izaera bereziarengatik ez direnak bibliotekako sistema informatikoan gordetzen: kartelak, jai-programak, esku-orriak, postalak, egutegiak edota artxibo pertsonalak. Artxibo hauek Jose Letona, Jose Maria Uranga eta Juan Leibar filantropo arrasatearrek bibliotekari dohaintzan utzitako dokumentu pertsonalak dira, eta iturri historiko bezala balio handia dute. Une honetan, Jose Letonaren funtsa bakarrik dago digitalizatuta, urteetan zehar egin den lanaren ondorioz.

2021. urtean 31 dokumentu gehitu dira Tokiko Bildumako funtsera. Hauetatik berriak, hau da, 2021ean argitaratuak, 8 dokumentu izan dira: 6 liburu eta 2 disko.

Herriko bilduma osatzen duten dokumentuak oso baliotsuak direnez, berauek biltzen dituen gela giltzaz itxita dago. Horrek bermatzen du funts hauen babes, baina zaildu egiten du zabalkundea.

Tokiko bilduma osatzeko garrantzitsuak dira herritaren inplikazioa eta emariak. Liburutegi publikoa ezin da mugatu tokiko memoria jasotzera eta biltzera; aitzitik, jarrera proaktiboagoa izan behar du, eta edukiak sortzea proposatu behar da: kontua ez da soilik bilduma kontserbatzea, sortzea baizik.

Azken urteetan Tokiko Bildumari bultzada eman nahian ari gara. Funts berezi hauen gaineko irakurketak eta ikastaroak egin ditugu, eta kudeaketa politika birdefinitzeko prozesuan gaude. Hausnarketa sakona eskatzen du honek eta oraindik lan asko daukagu aurretik; hala ere, jarraian azalduko ditugun aurrerapausoak eman ditugu.

### Lan teknikoak

Burutu diren lan teknikoen baitan, hauek dira aipagarrienak:

- J. Letona, J. Leibar eta J.M. Urangaren artxibo pertsonalak babeste aldera, egile eskubideak errespetatzen dituen araudia ezarri dugu.
- Kaset formatuan ditugun herriko musika taldeen lanak formatu digitalera bihurtu ditugu, edukia babesteko asmoz. Era berean, VHS formatuan ditugun bideoak formatu digitalera pasatzeko kontsulta egin dugu.
- Artxibo eta musika dokumentuez gain, digitalizatuak izan beharko liratekeen beste dokumentu batzuen zerrenda osatzen ari gara: Uranga eta Leibarren artxiboak, argitalpen bereziak, deskatalogatuak, jai programa zaharrak, kartelak, eta abar.
- Herrian argitaratutako aldizkari eta fanzineak katalogatu ditugu. Falta zaizkigun aleak lortzeko bilaketa lanei ekin diogu, eta aldizkari berezienak digitalizatzea da gure asmoa.
- Bibliotekaren web orrian Tokiko Bildumari bere leku propioa eman diogu eta

momentu honetan edukiak gehitzen ari gara.

## Jarduerak

Tokiko Bildumaren zabalkundea egiteko hainbat jarduera egin ditugu. Gainera, herriko talde eta ikerlariekin kolaborazioa ere landu dugu.

## Ez Donk Amaitu

*Ez Donk Amaitu* taldekoek 80. hamarkada Arrasaten gaiari buruzko erakusketa bat antolatu dute azaroan, Kultureteko klaustroan. Erakusketarekin batera, mahai-inguruak, zine emanaldiak, Biona tabernara bisitak eta beste hainbat jarduera jarri dituzte martxan. Bibliotekak hasieratik onartu du proiektuan parte hartzeko gonbitea. Fonotekan, erakusketaren luzapen bat bailitzan, interesgunea jarri dugu gaiaren inguruko 65 libururekin eta bibliografia hau jasotzeko gida monografikoa sortu dugu elkarlanean. Gainera, ikastetxeekin egin dituzten bisita gidatuetan ere kolaboratu dugu.



*Puntuak aldizkarian gure interesgunearen erreportajea.*

## Gabonetako lehiaketa

Arrasateren gaineko interesa pizteko, gabonetan zehar lehiaketa bat antolatu dugu herriarekin lotutako zazpi galdera luzatuz. Erantzunak bibliotekan bertan edo web orriaren bitartez emateko aukera egon da. Adin tarte guztietako 380 lagunek parte hartu dute. Erantzun zuzenak eman dituztenen artean, 60 euroko hiru opari txartel zozketatu dira.

Oso jarduera arrakastatsua izan da eta datorren urtean errepikatzeko gogoz gaude.

**Biblioteka**

**GABONETAKO LEHIAKETA**

**CONCURSO DE NAVIDAD**



**ZER EGIN BEHAR DA?**

- Formularioko 7 galderak erantzun (bibliotekan edo web orrian eskuragarri)
- Epea: urtarrilaren 9ra arte
- Sariak: 60 euroko 3 bono Elkar Arrasaten erabiltzeko
- Sari banaketa: galdere guztiak ondo erantzuten dutenen artean zozketa egingo da.
- Adin guztietarako

**¿QUÉ HAY QUE HACER?**

- Responder las 7 preguntas del formulario (disponible en la biblioteca o en la web)
- Plazo: hasta el 9 de enero
- Premios: 3 bonos de 60 euros para gastar en Elkar Arrasate
- Entrega de premios: se hará un sorteo entre las personas que respondan correctamente a todas las preguntas
- Para todas las edades

**ANIMATU PARTE HARTZERA!**

Arrasateko Udal Biblioteka  
www. arrasate.eus/biblioteka  
Tfn. 943 25 20 25  
kultura@arrasate.eus

*Gabonetako lehiaketako kartela.*









*Irabazleak saria jazotzean Juan Ramon Mendieta zinegotziaren eskutik.*

## Tokiko Bildumaren erabilera

Erabilerari dagokionez, gehien kontsultatu diren funtsak izan dira artxibo pertsonalak, bereziki Jose Letonarena, eta baita herriko historiari buruzko liburuak ere. Ohiko ikerlariak eta kontsulta partikularrak ere izan dira urte osoan zehar, besteak beste, argazki zaharren bila, baserrien edota bestelako eraikinen inguruko informazio bila.

## INTERNET ETA ORDENAGAILUEN ZERBITZUA

Bibliotekan modu autonomoan erabiltzeko ordenagailuak eta wifia daude. Interneten nabigatu daiteke edota ofimatika programak erabili. Eskaneatu eta inprimatu ere egin daiteke.




## WEB ORRIA ETA SARE SOZIALAK

Bibliotekako web orrian albisteak, agenda, nobedadeak, online tramiteak eta zerbitzuen inguruko informazioa eskaintzen dugu: [www.arrasate.eus/biblioteka](http://www.arrasate.eus/biblioteka)

Sare sozialei dagokienez, 1.700 jarraitzaile inguru ditugu Facebook, Twitter eta Instagram aplikazioetan



Bibliotekako web orria: <http://www.arrasate.eus>





## IRAKURKETA SUSTATZEKO JARDUERAK

### Literatura solasaldiak

Euskara, gaztelania eta ingelesezko solasaldiak izan ditugu.

Euskarazko solasaldietan Alex Gurrutxaga izan da koordinatzailea eta saioetan idazle zein itzultzaileak izan ditugu gonbidatu berezi bezala: Mari Luz Esteban, Josu Zabaleta eta Eneko Aizpurua.

Gaztelaniazkoetan bi ziklo izan ditugu 2021ean: *Literatura latinoamericana* Ane Zapatero koordinatzailearekin eta *Curso de literatura europea* Luisa Etxenikerekin.

Ingelesezkoetan Olwen Mears aritu da koordinatzaile.

Pandemia egoerak bultzatuta, saio batzuk bi modutara eskaini dira aldi berean: aurrez aurre eta online.

Solasaldiak	Saio kopurua	Taldeko partaide kopurua
Euskaraz	8	20
Gaztelaniaz	8	30*
Ingelesez	5	15

\* Uneko edukierak mugatutako kopurua. Itxaron zerrenda egon da.



*Alex Gurrutxagarekin solasaldiak online.*



*Luisa Etxenikerekin solasaldian.*

### **Ipuin kontaketa tailerra helduentzat**

Saroa Bikandi ipuin kontalaria izan da tailer honetako irakaslea. Tailerra zuzendu zaie 0-7 urte bitarteko haurren guraso, hezitzaile edota bitartekariei, eta ipuinak kontatzeko oinarritzko ezagutzak landu dira. 16 pertsona apuntatu ziren, baina konfinamenduak eta abar direla medio, talde errealak 11 pertsonak osatu dute eta amaieran oso balorazio ona jaso dugu.



*Saroa Bikandi ipuin kontaketa tailerlean.*

## Ingeleseko mintzataldea

Mintzatalde hau Jay Mann estatubatuarrak dinamizatzen du, modu boluntarioan. Jarduerak berak eskatzen du taldea txikia izatea, berba egiteko aukera izateko, eta beraz, 12 pertsonako topea jarri dugu. Jende gehiago apuntatu denez, zozketa bidez osatu da taldea; gainontzekoak itxaron zerrendan geratu dira. Guztira ordubeteko 15 saio egin dira eta jarduerak balorazio onak izan ditu.



*Ingeleseko mintzataldea.*

Ikasturtea bukatzeko, taldeari Arrasate hobeto ezagutzeko bisita gidatu bat eskaini diogu ingelesez. Bestalde, Jay Mannen lan boluntarioa eskertzeko, bibliotekak 150 euroko bonoa oparitu dio.



*Arantza Otaduyk zuzendutako bisita gidatua.*





*2021/22 ikasturteko programazioaren berri emateko, Ibon Sáenz de Olazagoitiak diseinatu ditu triptikoa eta kartela.*

### Ipuin kontaketak haurrentzat

Kulturaren eta Santa Marinako auzo bibliotekan ipuin kontaketak antolatu ditugu, adin tarte desberdinetako umeentzat. Kontalari hauek izan ditugu: Ane Gebara, Maite Franko, Eneko Haritza, Lur Korta, Izaskun Mujika eta Ines Bengoa. Horiez gain, Liburuaren Egunean Zaku Bete Ipuinek eskainitako Rodarika saio berezia izan dugu (Gianni Rodariren ipuinak proiektioekin uztartzen dituen) eta Bibliotekaren Egunean Ameli eta Xirrikituen Jostunek egindako ipuin kontaketa saio musikatua. Orohar, oso saio arrakastatsuak izaten dira, bai parte hartze bai kalitate aldetik.

Non	Saio kopurua	Partaide kopurua orotara*
Kulturaren	7	188
Santa Marinaran	5	81

\*Kontuan hartu behar da kopuru hauetan edukierak eta konfinamenduek eragina izan dutela.



*Lur Korta Santa Marinako auzo bibliotekan.*



*Ameli eta Xirrikituena jostunek.*

## Ahoz aho 2021

Intujai Teatro taldeak urtero antolatzen du *AHOZ AHO* ahazkotasunaren nazioarteko jaialdia. 14. edizio honetan ere parte hartu du bibliotekak eta horri esker, Ruben Martinez ipuin kontalaria izan dugu, Katalunian bizi den artista venezuelarra bera. Helduei zuzendutako kontaketa saio bat eskaini dugu. Bibliotekarentzat garrantzitsua da jaialdi



*Ruben Martínez ipuin kontalari venezuelarra.*

### **Liburuaren Eguna 2021**

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna da eta ospatzeko, hainbat jarduera antolatu ditugu. Haurrentzat ipuin kontaketa bereziak egon dira, dagokion atalean azaldu bezala. Helduentzat, berriz, bi proposamen izan ditugu: *Bookface Argazki Lehiaketa* eta Roberto Whiten *Izaki bereziak · Criaturas particulares* gorputz txotxongiloen ikuskizun mutua. Azken honetan 60 lagun bildu dira publikoan. Oso saio gogoangarria izan da.





*Roberto White txotxongilo ikuskizunean.*

**biblioteka**

---


 Apirilak 22. osteguna • 18:00 • **Kulturate**  
**RODARIKA**  
**Zaku Bete Ipuin** (Miren Larrea, Ion Chavez)  
 GIANNI RODARIREN IPUINAK PROIEKZIOEKIN  
 5 urtetik gorakoentzat (aurrez izena emanda)

---


 Maiatzak 07. ostirala • 18:00 • **Kulturate**  
**IZAKI BEREZIAK**  
**CRUATURAS PARTICULARES**  
**Roberto White**  
 GORPUTZ TXOTXONGILDEN IKUSKIZUN MUTUA  
 ESPECTÁCULO MUDO DE TITERES CORPORALES  
 Helduentzat - Para público adulto (+18)

---


 Apirilak 28. asteazkena • 18:00 • **Santa Marina**  
**ZORTE TXARREKO OTSOAK**  
**Maite Franko**  
 IPUIN KONTAKETA  
 3-4 urtekoentzat (aurrez izena emanda)

---


 Apirilaren 18tik maiatzaren 9ra  
**BOOKFACE**  
**ARGAZKI LEHIAKETA**  
**CONCURSO DE FOTOGRAFÍA**  
 Helduentzat - Para personas adultas (+18)


 - Info -

---

**2021 • Apirilak 23**  
**LIBURUA**  
**EGUNA** REN







*Programazioa iragartzeko, Ibon Sáenz de Olazagoitiak kartela eta eskura banatzeko postala diseinatu dizkigu.*

## Bookface lehiaketak

Aipatu bezala, apirilean eta Liburuaren Egunaren baitan helduentzako *Bookface Lehiaketa* antolatu dugu. Argazki lehiaketa honetan bat etorrarazi behar dira liburu baten azala eta aurpegia edo gorputzeko beste edozein atal. Parte hartzeari dagokionez, guztira 30 lan jaso ditugu.

Udazkenean 12-16 urtekoei zuzendu diegu lehiaketa eta 33 lan jaso ditugu oraingoan.

Epaimahaian Joxefe Diaz de Tuesta argazkilariak lagundu digu modu boluntarioan, eta sarituek 100 €ko bono bana jaso dute.



*Helduentzako Bookface Lehiaketaren irabazlea: Elisabeth Montoya Azpeitia.*



*Gaztetxoentzako Bookface Lehiaketaren irabazlea: Garazi Prieto Fernandez.*

## Bibliotekaren Eguna 2021

Urriaren 24a Bibliotekaren Eguna da eta ospatzeko, hilabete zehar hainbat jarduera eskaini ditugu.

Batetik, *Giza bibliotekaren IV. edizioa* aurrera eramán dugu. Ekimen honen ardatza hauxe da: denok dauzkagu ezagutzak eta bizipenak, kontatu eta entzun daitezkeenak; ondorioz,

liburu bihurtu gaitzke besteentzat. Oraingoan, gonbidatuak eta haien gaiak hauek izan dira:

- Amaia Arroyo. *Teknopedagogia kritikoa: teknologia digitala hezkuntzan* · *Tecnopedagogía crítica: tecnología digital en la educación.*
- Iñaki Peña. *Doluen bideetatik* · *Por los caminos de los duelos*
- Jesusi Etxebarria. *Musika bizi* · *Vivir la música*
- Josu Tornay. *Xakea bidelagun* · *El ajedrez como compañero de viaje*
- Luciana Alfaro. *Mi experiencia como feminista antirracista*
- Naiara Gorroño. *Barne begirada irekitzen* · *Abriendo la mirada interior*

Aurreko edizioak klaustroan egin baditugu ere, oraingoa hemerrotekan kokatu dugu. Parte hartzaile hauen lan boluntarioa eskertzeko, saioaren amaieran lunch bat eskaini diegu.

Mimo handiz prestatzen dugu jarduera hau, aurrez aurreko elkarrizketa eta ulermen intimoa sustatzen dituelako. Gonbidatu zein parte hartzaileek oso ondo baloratu dute jarduera, interesgarria iruditu zaie oso.



*Giza Bibliotekako partaideak.*

Bestetik, gazte eta helduentzako musika eta poesia saio bat antolatu dugu *Oraindik, orain eta oraingoz* izenekoa, Jon Basaguren musikariak eta Iñigo Astiz idazleak elkarlanean gauzatutakoa. 50 herritar bertaratu dira ikuskizunera. Haurrentzat, berriz, ipuin kontaketa bereziak egon dira, dagokion atalean azaldu bezala.



*Jon Basaguren eta Iñigo Astiz.*

biblioteka

## Urriak 24 BIBLIOTEKAREN EGUNA 2021



**Urriak 13**, asteazkena - 18:00, **Santa Marinaran**  
**IPUINEN HARIA**  
 Izaskun Mujika  
 IPUIN KONTAKETA  
 3-4 urtekoentzat (aurrez izena emanda)



**Urriak 21**, osteguna - 18:00, **Kulturaten**  
**AMELI ETA XIRRIKITUEN JOSTUNEK**  
 Amaia Elizagoien & Irati Celestino  
 IPUIN KONTAKETA MUSIKATUA  
 5 urteik gorakoentzat (aurrez izena emanda)



**Urriak 27**, asteazkena - 18:00, **Kulturaten**  
**IV. GIZA BIBLIOTEKA BIBLIOTECA HUMANA**  
 BIZITZA ISTORIOAK · HISTORIAS DE VIDA  
 Helduentzat · Para público adulto (+16)



**Urriak 29**, ostirala - 19:00, **Kulturaten**  
**ORAINDIK, ORAIN ETA ORAINGOZ**  
 Jon Basaguren & Iñigo Astiz  
 MUSIKA ETA POESIA EMANALDIA  
 Helduentzat · Para público adulto (+16)



Info









*Programazioa iragartzeko, Ibon Sáenz de Olazagoitiak kartela eta eskura banatzeko postala diseinatu dizkigu.*



## Biblioporrak eta Neguko Gida

Inguruko liburutegiekin elkarlanean, urtean bi gida osatzen eta argitaratzen ditugu, liburu, pelikula eta diskoen gomendioekin. Zabalkundeari dagokionez, paperean zein formatu digitalean zabaldu dira, eta ikastetxeetan lehen hezkuntzako irakasleei banatu zaizkie.

Diseinua Antzuolako Ikuxkak (Nagore Igarzak) egin digu.



<https://www.arrasate.eus/eu/udala/udal-sail-eta-zerbitzuak/kultura/biblioteka/files/biblioporrak-2021>

## Irakur puntua

Bibliotekaren 2022ko egutegia eta ordutegia zehazten duen irakur puntua egin dugu, bi bertsioekin: bata Kulturateko bibliotekari dagokiona eta bestea, Santa Marinako auzo bibliotekari. Urtetik urtera ilustratzailea aldatzen dugu eta oraingoan Miren Asiaini enkargatu diogu lana. Maketazioa eta inprimaketa Ikuxkaren esku egon da.



## 2022 | biblioteka

<b>URTARRILA</b>	<b>OTSAILA</b>
3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28
<b>MARTXOA</b>	<b>APIRILA</b>
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
<b>MAIATZA</b>	<b>EKAINA</b>
2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
<b>UZTAILA</b>	<b>ABUZTUA</b>
4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
<b>IRAILA</b>	<b>URRIA</b>
5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
<b>AZAROA</b>	<b>ABENDUA</b>
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

Astelehenetik ostiralera / Lunes a viernes 10:00-20:30  
 Larunbatean / Sábados 10:00-13:00  
 Ordutegi berezia / Horario especial 10:00-13:00/16:00-20:00  
 Udako ordutegia / Horario de verano 10:00-14:00/16:00-20:00  
 Abuztuaren 1etik 31ra / Del 1 al 31 de agosto 9:30-14:30

## 2022 | Santa Marinako auzo biblioteka

<b>URTARRILA</b>	<b>OTSAILA</b>
3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28
<b>MARTXOA</b>	<b>APIRILA</b>
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
<b>MAIATZA</b>	<b>EKAINA</b>
2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30
<b>UZTAILA</b>	<b>ABUZTUA</b>
4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
<b>IRAILA</b>	<b>URRIA</b>
5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31
<b>AZAROA</b>	<b>ABENDUA</b>
1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30	1 2 3 4 5 6 7 8 9 10 11 12 13 14 15 16 17 18 19 20 21 22 23 24 25 26 27 28 29 30 31

Astelehenetik ostiralera / Lunes a viernes 16:30-20:00  
 Ordutegi berezia / Horario especial 16:30-19:00  
 Asteburu eta jai egunak / ITXITA / CERRADO  
 Fines de semana y festivos

2015.urtean jaio zen Mundutik Arrasatera egitasmoarekin jarraitu dugu, zeinetan hiru eragilek parte hartzen dugun: proiektuaren bultzatzaile den Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Ekin Emakume Taldeak eta Udal Bibliotekak. Helburua da herritarron elkar ezagutza eta kultur aniztasuna sustatzea. Munduko txokoetatik etorri diren arrasatearrak beren herrietako ipuinak kontatzen dizkigute. Urte osoan osasun krisiak eragina izan badu ere, udazkenean bi saio eskaini ditugu: azaroan, Santa Marinako auzo bibliotekan Maritere Ruiz de Alegría eta Jasone Giraldoekin, frantsesa eta euskara uztartuz eta abenduan, Ttak! AED taldeak eskainitako ipuin kontaketa bat.





*Mundutik Arrasatera ipuin kontaketa Santa Marinaran.*

Nabarmentzekoa da Koldo Mitxelena Kulturuneak, Donostia Kulturak eta Tabakalerak urtero Liburutegien Egunaren inguruan antolatzen duten jardunaldian Arrasateko udal biblioteka gonbidatu dutela. Leloa *Immigrazioa eta liburutegiak: erronkak eta aukerak* izan da. Bertan, Arrasateko udal bibliotekak “Mundutik Arrasatera” egitasmoa aurkeztu du .



*Asun Agiriano Mundutik Arrasatera egitasmoa azaltzen.*

## Bisita gidatuak

Pandemia egoeraren ondorioz, urtearen bukaera aldera arte ez dugu bisita gidaturik izan. Urria eta azaroa, berriz, emankorrak suertatu dira zentzu honetan. Bibliotekan bisita gidatu hauek prestatu eta aurrera eraman ditugu:

Non	Erakundea	Maila	Saio kopurua
Kulturate	Arrasate Herri Eskola	LH3	4
	Arrasate Herri Eskola	LH4	3
	Arrasateko Institutua	DBH1	4
	Durana Ikasbide Ikastola	Zuzendaritza taldea	1
	Ez Donk Amaiturekin elkarlanean	DBH2, Batxilergoa 1	6
	Ekin Emakumeak	Helduak	1
	EPA-HHI	Helduak	3
Santa Marina	Arrasate Herri Eskola (Musakola)	HH3, HH4, HH5	19



*Bisita gidatua haur eta gazte bibliotekan.*

## Mintzoan kux-kux

2011z geroztik martxan daukagu egitasmo hau, lehen Bularretik Mintzora deitzen zena. Proiektu honen helburu nagusia da haurrengan irakurketa ohitura indartzea. Hori lortzeko, haurren irakurketa guneak elkartzen dira: familia, eskola eta biblioteka, zirkuito bat osatuz. Izan ere, haurrak bibliotekara datoz egitasmoaren motxilarekin, eta liburu bat aukeratzen dute Mintzoan kux-kux txokoan. Etxean gurasoekin irakurri ostean, eskolan lantzen dute, eta han beste ikaskide batek hartzen du motxila liburuarekin, bibliotekara joango dena, zikloa berrituz etengabe. Horrekin batera, bazkide ez diren hurrei txartela egiten diegu momentuan, liburu maileguan hartu dezaten.

2021ean, zehazki, Arrasateko ikastetxe guztietako 3, 4 eta 5 urteko haurrek parte hartu dute proiektuan; Erguin eta Arizmendiren artean, guztira 25 ikasgela. Motxila berriak erosi eta banatu ditugu ikasturte hasieran.

Ikastetxeek oso ondo baloratzen dute egitasmo hau eta oso arrakastatsua da, haur denak bibliotekara eta irakurketara hurbiltzea lortzen dugulako, haien familiekin batera.



*Mintzoan kux-kux txokoa.*



## Interesguneak

Funtsean, gai bat aukeratu eta haren inguruko materialak elkartzen dira hainbat euskarritan epe jakin baterako. Helburua da erabiltzailearen arreta eta interesa erakartzea, irakurzaletasuna sustatzea eta bibliotekako bilduma modu dinamikoan ikusaraztea.


Interesguneen aukeraketa egiteko irizpideen artean, kontuan izaten ditugu gaurkotasuna duten gaiak, urteurrenak, nazioarteko egun señalatuak, idazleen heriotzak, eta abar.

Helduen bibliotekan	Haur bibliotekan
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Argazkigintza</li> <li>• Almudena Grandes (1960-2021)</li> <li>• Ez Donk Amaitu</li> <li>• Pertsona Nagusien Nazioarteko Eguna</li> <li>• Migratzaileen Nazioarteko Eguna</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gianni Rodari (urteurrena)</li> <li>• Migratzaileen Nazioarteko Eguna</li> </ul>
	Bideotekan
	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Zirkoa zineman</li> <li>• Zinema eta rocka</li> </ul>



*Interesgunerako prestatu ditugun gidak.*

## Irakurketa agenda



*Irakurketa agenda.*

Bazkideen artean banatzeko 170 irakurketa agenda argitaratu ditugu. Baliagarriak dira irakurritako liburuak, irakurri nahi ditugunak edo gomendatzen dizkigutenak gogoratzeko. Gainera, aukera ematen du apuntatzeko liburutegian edo liburutegi-sarean eskuragarri dagoen liburua, erreserbatu dugun edo dagoeneko irakurrita daukagun. Atariko ilustrazioa Lexuri Doyaguerena da.

## LANTALDEA

Helburuak lortzeko orduan, eta aurrekontu-mugak gorabehera, liburutegiek ezinbesteko baliabidea dute: pertsonak. Arrasateko bibliotekan zerbitzua eskaintzen da 8 langile finkorekin, lanaldi osoan. Horietako 5 langile A2 mailako bibliotekariak gara eta 3 langile C1 mailako liburuzain laguntzaileak. Hauetako liburuzain laguntzaile bat Santa Marina auzo bibliotekako langilea da.

Udan, Santa Marina itxi egiten da eta bertako langilea Kulturatera dator. Langileen oporraldian Kulturateko zerbitzua zabalik mantentzeko, liburuzain laguntzaile bat kontratatzen da bi hilabeterako.

Udalak urtero sinatzen du *Gureak* taldearekin *Pauso Berriak* programan parte hartzeko elkarlan hitzarmena. Horri esker, David Raso lankidea etortzen da lanera egunero ordu eta erdiz.



## Prestakuntza

Liburutegiek behar dituzte talde motibatuak eta gogotsuak. Arrasateko bibliotekako lan taldea inplikaturik da eta prestakuntza maila eguneratua du.

Inguruan ditugun erakunde desberdinek ahalbideratzen dute etengabeko hobekuntzaren kultura. Arrasateko Udalarengandik, Eusko Jaurlaritzako Liburutegien Zerbitzuarengandik edo bazkide garen elkarte profesional desberdinengandik -ALDEE edo Galtzagorri elkarteak, esaterako- jasotzen ditugu ikasteko eta baita esperientzia-trukaketa gauzatzeko aukerak.

<b>Ikastaroa</b>	<b>Orduak</b>	<b>Langile kopurua</b>	<b>Antolatzailea</b>
Jóvenes lectores en la era digital	45 (on line)	1	SEDIC
Servicios bibliotecarios para y con personas mayores	40 (on line)	2	ALDEE
Lenguaje inclusivo	20 (on line)	2	IVAP
Técnico en gestión de la información	160 (on line)	1	LIBURUTEGI ZERBITZUA
Congreso Nacional de Bibliotecas Públicas	21 (aurrez aurre)	1	KULTURA MINISTERITZA
Komunikazio eraginkorra	15 (on line)	1	ASMOZ FUNDAZIOA
Liburuen aukeraketa irizpideak	8 (aurrez aurre)	1	ALDEE GALTZAGORRI
CDU: descripción, estructura y aplicación	18(aurrez aurre)	1	ALDEE
Análisis de puestos de trabajo	15 (aurrez aurre)	1	IVAP



## INSTALAZIOAK ETA EKIPAMENDUAK

### Kulturate

XXI. mendearen hasieran, begi bistakoa da teknologiak gizarte berri bat moldatzen ari direla. Sortzen ari den gizarte berri honetan herritarrak informazio eta komunikazio teknologiek harreman estua eduki eta erraztasunez erabiliko beharko ditu, eskubide osoko kide izateko. Zentzu horretan, bibliotekako iazko ekipamenduak teknologiarekin du zerikusia: bost ordenagailu eta pantaila, hiru ordenagailu eramangarri (horietatik bi erabiltzaileek maileguan etxera eramateko aukera izan dezaten), Wifi bidez inprimatzeko sistema eta bigarren eskaner bat erabiltzaileentzat ere.

Wifi bidez inprimatzeko softwarea erosi da, eta honela, erabiltzaileek beraien telefono edo ordenagailuetatik zuzenean inprimatu dezakete.

Ekipamendua	
Azalera erabilgarria (m2)	1.400
Bildumarentzako apalak (m2) (sarbide librea/gordailua)	1276/550
Irakurpuntuak	182
Ordenagailuak (publikoak/barnekoak)	19/10
OPAC( katalogoa kontsultzeko ordenagailua)	5
Inpresorak (publikoak/barnekoak)	4/4
Eskanerrak (publikoak/barnekoak)	3/1
Ordenagailu portatilak (publikoak/barnekoak)	3/0
Fotokopiagailuak (publikoak/barnekoak)	2/1
eReaderrak (publikoak)	16
Ipad (barnekoak)	1
Wifi zerbitzua	Bai
Astean irekitako orduak	55,5



*Bideotekan zinema klasikoan oinarritutako argazki mural bat jarri dugu, apaingarri gisa.*

### **Santa Marinako auzo biblioteka**

Toki Argi izena duen eraikinak makina bat urte darama udal zerbitzuak eskaintzen. Bibliotekak, adibidez, 30 urte ondo beteak ditu baina orain arte herritarrek ez zekiten zerbitzuak non zeuden; beraz, beharrezkoa zen kanpo zein barruko seinalizazioa jartzea. 2020. urtean kanpo aldeko leihoetan jarri ziren Ludoteka zein Auzo biblioteka izenak eta 2021ean margotu dira, batetik, bi udal zerbitzuak biltzen dituen eraikineko ate nagusian Biblioteka eta Ludoteka hitzak eta marrazkiak eta, bestetik, bibliotekako atea bera. Helena Azkarragaurizarrek bibliotekaren ilustrazioa egin du.

Kanpoko atearen ondoan dokumentuen itzulketetarako eta korreoa jasotzeko buzoi bat jarri da, zerbitzua itxita dagoenean erabiltzaileek bertan utz ditzaten liburuak.

Auzo bibliotekak duen espazioa oso txikia da. Estandarrak 350 m<sup>2</sup> ezartzen ditu eta gure bibliotekak 46 m<sup>2</sup> baino ez ditu. Bilduma osatzera datozen dokumentu berrientzat tokia asmatzen ibili behar izaten gara. Aurten adibidez, bi apal gehiago lortu ditugu lurra bera erabiliz.

Ekipamendua	
Azalera erabilgarria (m2)	46
Bildumarentzako apalak (m2) (sarbide librea/gordailua)	51/3
Irakurpuntuak	20
Ordenagailuak (publikoak/barnekoak)	2/1
OPAC( katalogoa kontsultzeko ordenagailua)	0
Inpresorak (publikoak eta barnekoak)	1
Fotokopiagailuak (publikoak eta barnekoak)	1
eReaderrak	2
Wifi zerbitzua	Ez
Astean irekitako orduak	17,5



*Santa Mariniako auzo bibliotekako sarrera.*


## FINANTZAKETA

Finantzaketa alorrean azken hiru urteetako bilakaera erakutsi nahi dugu.


2019an material bibliografikoa erosteko udalarengandik jasotako kopuruarekin ezin genien aurre egin urte osoko erosketei; horregatik 2020an aurrekontuak % 66aren gehikuntza izan zuen. 2021ean, berriz, aurrekontua 40.000 €ko izan da eta halere ez dugu betetzen bildumari dagokion estandarra.

Bestalde, adierazgarria da Santa Marinako auzo bibliotekaren eskuraketa bibliografikorako partidak ez duela igoerarik izan azken 15 urteetan; egun 2.500 €koa da.

Jarduerak antolatzen ditugu irakurketa ludikoa sustatzeko eta diziplina artistiko ezberdinen bitartez publikoa literaturara gerturatzeko; ekintza motak ezagunak eta iraunkorrak dira -literatura solasaldiak, ipuin kontaketak-. Azken bi urteetan ekintzak burutzeko aurrekontuak izan duen % 20aren beherakadak zaildu egiten du irakurzaletasuna bultzatzeko eskaintza zabala gauzatzea, urte hasierako helburuei estutasunez heldu behar izaten diegu eta ezin izan dugu herritarren interesei erantzungo dien jarduera berriak proposatu.



Teknologia berriak ezartzeko edo/eta garatzeko diru-laguntza jaso dugu Eusko Jaurlaritzatik. Ekipamenduan aipatutako gastuak 5.615,41 €koak izan dira. Hortik, Eusko Jaurlaritzak 4.935 € jarri ditu eta Arrasateko Udalak 680,41 €.



## LIBURUTEGI PUBLIKOEN ESTANDARREN BETETZE MAILA

20.000 biztanletik gorako udalerrietako liburutegi publikoek Eusko Jaurlaritzak onartutako 11/2007 Legeak ezartzen dituen zerbitzu batzuk bete behar dituzte.

Arrasaten estandarren garapena horrela jasotzen da:

Adierazlea	Arrasateko udal bibliotekan	20.001etik 30.000ra biztanleko herriak
Zerbitzuguneak	Liburutegi nagusia + haur eta gazte liburutegia	Liburutegi nagusia + hiri liburutegi 1
Azalera (m2)	Kulturate: 1.600 Santa Marina:46	Liburutegi nagusia: 1.500 Gutxieneko eremua: 350
Sarbide libreko funtsak	53.077 dokumentu	44.000 dokumentu
Eskuratze indizea	Bildumaren % 8 inguru	Bildumaren % 10
Sarbide informatikoa	Kulturate: 19 Santa Marina: 2	Liburutegi nagusia: 20 Hiri-liburutegiak: 10
Langileak	8 langile	11-14 langile
Astean irekitako orduak	55,5	60-70



## ONDORIOAK ETA LAN LERROAK

Arrasateko Udal Bibliotekako zerbitzuaren argazkia egiten saiatu gara. Hauek dira ondorioak edo hausnartzeko gaiak:

- Bildumari dagokionez, oraindik ez ditugu betetzen Irakurketa Mapan egokitutako estandarrak. Bildu ditugun datuek erakusten dute Arrasateko herritar askorentzat erreferentziazko zerbitzuak direla Udal Biblioteka eta Santa Marinako Auzo Biblioteka. Estandarretara heltzen saiatu behar gara, izan ere, herri baten kultura eta informazio eskubideak kaltetzen ari gara eta erabiltzaile kopuru handia galtzeko arriskuan egon gaitzke. Bibliotekako bilduman inbertitzea demokrazian eta berdintasunean inbertitzea da. Ondorioz, eskuraketa bibliografikoari igoera aplikatu beharko zaio, urtez urte. Horrela, eskaintza eguneratua eta erakargarria izango genuke, edo, adibidez, tokiko aldizkariak zein lurralde desberdinetako egunkari digitalen harpidetzak eskuratuko genituzke.

-Irakurketa sustatzeko jarduerak oihartzun handia dute. Bibliotekako saioak arrakastatsuak dira, erabiltzaileen artean jasotako balorazioek eta parte hartze kopuruek adierazten duten bezala. Halere, azken bi urteetan ekintzak gauzatzeko aurrekontuaren diru partidak izan duen beherakada ez digu uzten funtsezkoak diren helburuak betetzen, esaterako idazketa tailer bat, erakusketa bat, helduentzako ipuin kontaketa saioak edo gazteen parte hartze aktiboa bultzatzeko ekintzak antolatzea. Horretarako funtsezkoa da azken bi urte hauetan kontu sail honek izan duen 5.000 € beherakada berreskuratzea.

-Santa Marinako bibliotekak azalera txikiegia du, 46 m<sup>2</sup>, eta ez du zerbitzua behar bezala hazten uzten. Oso urrun gaude estandarrak agintzen digun gutxienekotik, 350 m<sup>2</sup> alegia. Azalera gehiago izango bagenu, auzoaren egungo errealitateari heltzeko prestatuta egongo ginateke, izan ere Musakola auzoan etxe ugari eraiki dira azken 15 urte hauetan. Familia berri gehiago daude eta egoera honek beste gabezia nabarmen bat uzten du agerian: Santa Marinako auzo biblioteka haur eta gazteei zuzenduta dago eta estandarrak dioena ez du betetzen, ezin dugu helduei zuzendutako zerbitzurik eskaini.

Liburutegiak ikasteko eta dokumentuak mailegatzeko eta itzultzeko erabilera puntualeko aretoak baino zerbait gehiago dira. Pandemiak gogora ekarri du liburutegi publikoen alderdi soziala sendotu egin behar dugula. Liburutegi publikoaren ereduak hirugarren lekua izan behar du, etxearen eta lanaren ondoren. Komunitatearen arteko loturak sendotzen dituen lekua behar du izan, espiritu sozialagoarekin, ez hainbeste liburuen leku bat, baizik eta pertsonena.

Hau da gaur arte dugun argazkia. Aurrera begira jarriz gero, hauek liriateke lan lerro nagusiak:

-Zerbitzu gutunak herritarrekiko konpromiso formula dira. Bibliotekako zerbitzu gutuna 2020-2022 epealdirako da eta, beraz, aurten berriztea dagokigu.

-Liburutegiaren jardueran lan prozesuak sistematizatzeko araudiak funtsezkoak dira. Oinarrizko gidalerroak erabiltzeak sistematizatu egiten du liburutegietan egiten den lana, kudeaketari zorrotasuna eta gardentasuna ematen dizkio eta langileoi ikuspegi sendo eta orokor bat hartzeko balio digu. Beste herri ugarietako liburutegiek badute araudi propio bat, Arrasatek berea izatea nahiko genuke.

-Liburutegien kudeaketan garrantzitsua da plangintza estrategiko bat ezartzea, zeinetan asmoen adierazpen bat egin eta lana bide horretan antolatuko den. Horregatik, plan estrategiko bat egitea dugu erronka, liburutegiko urratsak gidatuko dituen.

## BIBLIOGRAFIA

- 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko Liburutegiei buruzkoa

<https://www.legegunea.euskadi.eus/webleg00-contfich/eu/contenidos/ley/bopv200706288>

- Euskadiko liburutegi publikoen 2012ko estandarrak

[https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicacion\\_profesional\\_biblio/eu\\_def/adjuntos/estandarrak\\_LP\\_2012.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicacion_profesional_biblio/eu_def/adjuntos/estandarrak_LP_2012.pdf)

- Euskarazko argitalpenei buruzko XV. Txostena

<https://www.euskadi.eus/eusko-jauriaritza/-/euskarazko-argitalpenei-buruzko-xv-txostena-2019/>

- Unesco: Manifiesto sobre la biblioteca pública

[https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000112122\\_spa](https://unesdoc.unesco.org/ark:/48223/pf0000112122_spa)